

Heri Aldizkaria

# Otamotz

2002ko iraila 79. alea



## Goazen Kilometroak festara!

IRITZIZ-IRITZI: JONMIKEL INTSAUSTI

ELKARRIZKETA: JON PLAZAOLA

SANTA ANASTASIAK 2002



Euskara "txinoa" bada zuretzat,


Si el Euskera te suena a chino,

Ni txinin, txirrin,  
txirrinduila, dulai...



**UDAL EUSKALTEGIAK...**

Ni txirrinduan  
nabil.



...y el euskera te sonará bien.  
...eta euskara zeurea egingo duzu.

## **2001-2002 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK**

### **ESKAINZA**

EUSKALDUNTZE,  
ALFABETATZE eta EGA.  
Modulo eta ordutegi zabalak.  
Bekak.

### **BULEGO ORDUTEGIA**

Goizez: 09:00-13:00  
Arratsaldez: 15:00-19:00

### **MATRIKULATZEKO EPEA ZABALIK**


16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago Udal  
Euskaltegian.

# **URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Labeaga kalea, 40 A (Belaustegi plaza berria) URRETXU Tel.: 943 72 33 10  
euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net





50eko hamarkadan Santa Anastasietako zezenketetan ateratako argazkia.

Beheko ilaran: 1. Hurtado, 2. Juanena, 3. Juanena, 4. Balentin Berriotxoa, 5. Teo "barrakeroa", 6. Badillo eta 7. Maria Luisa Azpillaga.

Bi neskak: 8. Koro Arbizu eta 9. Mertxe Okariz.

Bigarren ilaran: Josetxo Arrizabalaga.

Hirugarren ilaran: 11. Alberto Oliván, 12. Arakama, 13. Jesus Mari Portu "Kapu", 14. Pello Iturbe, 15. Fermin Larraza eta 16. Jose Luis Idiakez.

Laugarren ilaran: 17. Juan Mari Areitio "Biskai", 18. Oñatibia, 19. Mikel Soraluze "Pastas", 20. Iñaki Abasolo, 21. Demetrio Fernández, 22. Prieto, 23. Sanz eta 24. Torres.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.




# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599




## Ricardo Torres nagusi Goierriko Itzulian



Urtero bezala, Goierriko Itzulia Santa Anastasietako aurrekaria izan da. Aurtengo ekitaldia Alfus-Tedes taldeko Fernando Torresek irabazi du. Fede Etxaberen mutilak nagusitasun handia erakutsi du, nahiz eta Antion bukatu zen lehen etaparen ondoren epaileek 20 segunoko zigorra ezarri zioten. Lehen etapako garailea Baqué taldeko Ricardo Serrano izan zen.

Bigarren etapan, Santa Barbaran, Torresek berak irabazi eta liderraren mailot horia jantzi zuen. Igandean, Caja Ruraleko Aitor Perez Arrieta zegamarrak irabazi zuen etapan, Perez Arrieta eustea nahikoa izan zitzaion Fede Etxaberen mutilari.


Fernando Torresek, sailkapen nagusiaz eta bigarren etapaz gain, erregularitatea, mendiko sailkapena eta taldekakoa ere irabazi ditu. Tarteko helmugen sailkapena, berriz, Monjardín taldeko Cesar Garrizek irabazi du.



## Alberto Alejandro, Barakaldo futbol taldera

Gutxi iraun dio pozak Alberto Alejandro Zumarragako futbol jokalaria-ri. Duela urtebete pasatxo Realako zuzendaritzak lehen taldera igoko zela jakinarazi zion. Iazko denboraldiari ilusioz gainezka ekin zion arren, denboraldi hasieran ez zuen ia jokatzeko aukerarik izan eta, ondoren, lesio larria izan zuen. Aurten Realarekin duen kontratua bukatzen zaio eta aurrendenboraldian Denoueix entrena-tzaile berriaren onespina lortzen saiatu zen. Azkenean Realeko teknikoeak beste talde bati uztea erabaki zuten eta 2. B Barakaldon jokatzeko ari da. Alberto ez da batere gustura agertu Realak berarekin izan duen portaerarekin, baina hori ahaztu eta balio duena erakusten saiatu beharko da lehen mailara bueltatu ahal izateko. Oraingoz nahiko ondo ari da, Barakaldorekin jokotutako lehen partidako gola sartu baitzuen.

**F**erretería **B**RAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA  
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



## ZSK-k maketa kaleratu du bere 10. urteurrena ospatzeko

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa txalapartari taldea bere hamargarren urteurrena ospatzen ari da. Hori dela eta, joan zen ostiralean bere lehenengo diska aurkeztu zuen Urretxuko Gernikako Arbola plazan.

Hamaika abestiz osatua dagoen diska honetan Urretxu eta Zumarragako hainbat musikaririk parte hartu dute. Hauek guztiek, euren musika tresnen soinua txalaparta soinuarekin uztartu dute. Teknikari lanean Borja Aranburu aritu da.

Diskan parte hartu duten musikarien zerrenda benetan luzea da, herriko musika talde gehienek parte hartu baitute: Ostebe, Bakarne Jorge, herriko trikitilariak eta DJ-ak, Goiargi Txiki abesbatza... Haez guztiez gain, Jose Luis Padron eta Andoni Salamero poetek eta Gorka Salmeron argazkilariak ere euren ekarpena egin dute. Guztira, ZSK taldeko kideez gain, 52 lagunek parte hartu dute.

Ostiralean aurkeztu zuten diskoa ZSK-koek atera duten lehena da, baina lehenago ere grabaketa ezberdinetan parte hartuak dira. Duela urte batzuk SFO herriko taldeak grabatu zuen maketarako txalaparta jo zuten eta Rogelio Botanz abeslari legazpiarraren azken diskoko abesti batean ere ZSK-koen txalaparta soinua entzun daiteke.

Izan ere, ZSK-koek ia denetatik egin dute hamar urte hauetan. Musikari dagokionez, txalaparta euskarri oso ezberdinetan jo dute: danborretan, bidoietan, harrian, burnian... eta egurrean, noski. Horrez gain, toki askotan izan dute ZSK-koen emanaldiez gozatzeko aukera: Euskal Herriko herrialde guztietan, Bartzelonan, Oviedon, Fuengirolan, Sevillan, Alemanian... Aurten, esaterako, ZSK-ko hainbat taldekide Lurra dantza taldeko dantzariekin joan dira Poloniara.




### MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE  
KRUASANDEGIA  
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06  
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU



## Lurra: Euskal Herriko enbaxadore lanetan Polonian



Uda honetan ere Urretxuko Lurra Dantza Taldeko kideak euskal dantzen eta kulturaren enbaxadore lanetan izan ditugu atzerrian. Abuztuaren 20an Polonia aldera abiatu ziren bertako Rzgów herriko "Uztaren jaialdian" parte hartzera. Bidean, Urretxurekin anaiturik dagoen Alemaniako Schwazenbruck herrian atsedean hartu zuten. Poloniarra abuztuaren 23an heldu ziren eta, bertan, bost egun eman zituzten. Itzuleran, uholde izugarriak jasan dituen Txekiako hiriburua, Praga, eta Suitzako Berna bisitatu dituzte.


Lurrakoek poloniarrek Europa mailako folklore elkarte baten bitartez ezagutu zituzten. Urretxuko dantzari eta musikariek Poloniako jaialdia izan den egunetan joateko aukera zuten eta poloniarrek Santa Anastasietan etor daitezkeenez, bertara joatea erabaki zuten.

Rzgów Poloniako herri nekazari txiroa da, baina euskaldunak primeran zaindu dituzte. Lurra jaialdian parte hartu zuen Poloniatik kanpoko talde bakarra zen eta oso adeitsu jokatu omen dute eurekin. Xabier Torres txistulariak esan digunez, "hotel batean lo egin dugu eta primeran eman digute jaten. Heldu ginenean hoteleko taberna obratan zegoen, baina egun bakarrean sekulako lana egin zuten guretzat ireki ahal izateko".

Poloniarren eta euskaldunen arteko harremanetan ez omen da hizkuntza ez beste oztoporik izan, baina Poloniako ohi-tura batzuk herritarren harridura sortu dute. "Hemen garai batean gertatzen zen moduan, herriko alkatea, medikua, poliziburua... oso errespetagarriak dira bertan: jaialdia hasi aurretik zutitu egiten ziren eta jendeak txalo egiten zien".

Lurrako dantzari eta musikariek ere poloniarren txalo zaparradak jaso zituzten, nahiz eta beraiek beste mota bateko dantzak espero zituzten. "Poloniarrek espainiako talde bat espero zuten, flamenkoa dantzatuko genuela uste zuten. Dena den, kanpora joaten garenean dantza ikusgarriak dantzaten ditugunez, asko gustatu zitzaizkien. Bertara heldu ginenean eurentzat espainiarrak ginen eta itzultzean euskaldunak".

Xabierren ustez, bidaia oso probetxugarria izan da. "Euren kultura ezagutzeko aukera izan dugu eta eurek gurea ezagutzeko aukera izan dute. Polonian, gainera, toki ikusgarriak bisitatu ditugu. Jelitzka-ko gatz meategiak, esaterako: meategi honetako galeriek, guztira, 300 kilometroko luzera dute. Barruan, elizak, jatetxeak... daude".



## BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA




# KORTABERRI TABERNA



PINTXOAK - OTARTEKOAK - KAZOLATXOAK  
**KALEBARREN**



SANTA ANASTASIA JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU



**RENEDO** argazkiak  
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak  
Labeaga 52-54 F. URRET XU  
☎ 725682 ☎ 722292



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA





Jonmikel Intsausti

## Nik ez dut aurrekurik nahi...

Euskal politika sugarren gainean dantzan dabilen garaiotan eta eguzkiak beste lurraldeak berotu eta gurea hodeien gerizpean abandonatu duenean... dantzaren munduari buruzko gogoeta batzuk kanporatzeko beta izan dut oporrak izan bitartean. Azken urteotan ohorezko dantzen artean, ohorea eta esker ona izan beharko lukeenak sinbolo hutsari utzi dio tokia ene ustez, eta gaia hobeto azaldu dezadan, eta hori bai, Euskal Herriko herri guztietan dauden dantza-taldeen lana benetan estimatuz, hona hemen pare bat adibide:

Lehenengoa joan den maiatzaren 31n, Antio ermitako eserleku berriak bedeinkatu zireneko egunean gertatutakoa. Ez-ohiko eguna zen Zumarragako ezpatadantza ikusi ahal izateko, eta ermitara hurbildu nintzen -ia berandu egia esan ezpatadantza ikusteko asmoz; izan ere zalantzarik gabe, niretzako Antioko harrizko pareten artean Zumarragako ezpatadantzaren ikustea herri honetan bizi daitezkeen ekitaldirik zirrargarrienetako bat da. Bitartean tenplua beteta, eta bertan bildutako jendea ezpatadantza eta ondorengo meza egin zitezzen zain... eta zain diot zeren eta Miren Azkarate Kultur Sailburua berandu zetorrenez, ermita guztia betetzen zuten ehunka lagunok 30 minutuko itxaronaldia bete behar izan genuen. Jendearen marmarrak eta galderak tartean... eta polemiketan sartzeko gogorik gabe, burura datozkit orduan ene buruari egin nizkion zenbait galdera... posible izango litzateke Antioko meza aurreko ezpatadantza-ekitaldia agintaririk gabe egitea? Nor izan zen maiatzaren 31n, ekitaldiko pertsonaiarik garrantzitsuena, Miren Azkarate ala herria bera? Datozen ekitaldiren batean beste agintariren bat berandu bada, berriz itxaroten geratu behar izango da eliza betetzen duen ikuslego osoa?

Pello Lizarralde zumarragar idazleari entzun eta irakurri diot hiruzpalau aldiz Zumarragari buruz egiten duen komentarioa. Bere gatzetasuneko Zumarragari buruz galdetzen zaionean cortijoa zela behin eta berriz errepikatu izan du berak. Dantzaren inguruan lehengo maiatzaren 31n gertatukoarekin, oraindik ere gizarte kontuetan herrian cortijoan jarraitzen dugula berresten dut.

Bigarrena, gaur egun beste ohorezko dantza batekin gertatzen ari dena, aurrekuarekin alegia. Aurrekua ohorea eta esker ona adierazteko dantza izatetik, ezkontza eta beste zenbait ekitalditan hornidura gisa erabiltzen den ekitaldi folkloriko hutsa bihurtu da... hasierako ohorezko mezu guztia galduz alegia. Izan ere, aurrekuaren bitartez egun ez da ia inor omentzen. Aurrekua kopetaraino dantzatzaren baita gaur egungo ekitaldietan: ezkontzetan (horietatik, ezkontideek herriko dantza taldea edergarri gisa kontratatuta sarritan), ekitaldi politikoetan, areto berriak, enparantzak, monumentuak, errepideak, zubiak, bidegurutzak edo errotondak inauguratzerakoan... kanpoko zein bertako agintariak etortzerakoan... aurrekua edozein ekitalditan garrantzizkotzat eta ezinbestekotzat jo daitezkeen parte bihurtu baita, askotan, gehienetan esango nuke nik, bere jatorrizko ohorezko esanahi hori galduz. Izan ere, ohorea ezin daiteke erosi, eta sale-rostearekin aurrekuaren prostituzioa baino ez da lortu... aurrekuaren dantzatzea sinbolo hutsa bihurtu da!

Eta dantzaren inguruan bestelako gaiekin jarrai nezake, txapelketetan esate baterako, dantza-sueltoan aritzen diren bikoteen ekintza perfektua (miresgarria, akatsik gabea... hau da, perfektuegia eta naturaltasunik gabekoa zimurra ere ederra dela ahaztu baitzaigu hor nonbait), Zuberoan dantzek (eta horri lotuta pastoralek zein maskaradek) herriaren kulturaren baitan hartu duten azken hatsaren aurrekoa, dantzaldietan jendearen dantzarako apatia, lotsa, gaizki-ikusia... baina horiek agian, beste baterako utziko ditut.

Gizarte kontsumista eta balore bako batean bizi gara, eta dagoeneko ia den-dena erosi daiteke dirurik tartean badago. Geroz eta akulturalago den gizarte honetan, edo-eta kultura? eredu bakarra eta bera saldu nahi diguten gizarte honetan, kultura sinbolo bihurtzen ari da, aurrekua folklore hutsa bihurtzen ari den bezalaxe, maiatzaren 31ko hartan Zumarragako ezpatadantza bigarren planora pasatu zen bezalaxe.

Hauxe da gure seme-alabek jasoko dutena... eta niri zer axola!!!. Futbol-liga hastear dago-eta...



## Zer gogoratzen duzu 1985eko Kilometroak festaz? Zer diozu aurtengoaz?



**Arantxa Zaldúa**

Urte hartan seme zaharrena Ikastolan hasi behar zuenez, emozioz bizi genuen. Semea karrotxoan sartu eta Santa Barbarara igo ginen. Aurten, berriz, lan egiteko izena eman dut.



**Edurne Murua**

Eguraldi bikaina egin zuela eta festa ederra izan zela gogoratzen dut. Urriaren 6an Urretxu-Zumarragara etorriko gara eta zirkuitua egingo dugu. Ingurukoak antolaketan lanetan dabilzan.



**Maria Teresa Goikoetxea**

Kilometroak festa asko atsegin dudan arren 85ean ez nintzen izan, kanpoan bainengoen. Aurten, ordea, hemen izango gara. Suhia batzorde batean lanean ari da.




**Josune Zuhaitz**

Kilometroak 85en primeran pasa genuela gogoratzen dut. Aurten, egunean bertan lan egiteko izena eman dut. Hala ere, festaz gozatzeko aukera ere izango dugu.



**Urko Zaldúa**

4 urte besterik soilik nituenetz, gurasoekin ibiliko nintzela suposatzen dut. Gogoratzen dudak bakarria herrian globo aeroestatiko bat izan zela da. Aurtengoan, auto zozketarako txartel batzuk saltzen ibili naiz.



**Aitor Sarasua**

Ez nintzen 85eko Kilometroak festan izan, familia bazkaria izan bainuen hemendik kanpo. Aurten koadrilakook zer edo zertan lan egiteko izena eman dugula badakit, baina ez dakit zertan.

**BIONA**

**AROTEGIA**

**Altzariak neurrira**

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzale:

En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa**

fundazioa  
fundación

**EDURNE**

**JANTZIDENDA**

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

**Lanbica**

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Urtebete luzeko lanaren ondoren, dena prest dago jada Urretxu eta Zumarragak denbora luzean biziko duten festarik handienerako. "Elkarren beharrea" lehari jarraituz, ehundaka lagun izan dira azken hilabeteotan Kilometroak 2002ko batzorde ezberdinetan lanean. Antolaketa 17 batzordetan banatuta dago: arropa salmenta, ekonomia, tonbola, auto zozketa, trafikoa, txosnak, zirkuitua, segurtasuna, gaztedia, muntaia, giza baliabideak, aldizkaria, kultura, komunikazioa, protokoloa, osasuna eta garbitasuna. Hauetan guztietan parte hartu duten herritarrei esker, urriaren 6an Urretxu-Zumarragan espero diren 100.000tik gora lagunek egun ederra pasatzeko aukera izango dute.

Protokolo taldekoek prestatu duten ekitaldiak emango dio hasiera festari. Ikastolako plazan, (1. Gunean) izango den ekitaldi honetan Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, Maria Angeles Iztueta Hezkuntza Kontseilariak, Roman Sudupe Gipuzkoako Aldun Nagusiak, Jose Ramon Zubizarreta (GIE) Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidentek, Aitor Gabilondo Zumarragako alkateak eta Pello Gonzalez Urretxuko alkateak eta M. Luisa Mujika Urretxu-Zumarragako Ikastolako lehendakariak hartuko dute parte.

Hasierako ekitaldiak 3 zati izango ditu. Kilometroak egunari hasiera emango dion zinta mozketa izango da lehena, bigarrenik antolatzaileek eta etorritako agintariek ibilbidea egingo dute eta bukatzeko (eguerdiko 12etan Lizeoan) 22 urtetan zehar Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko lehendakaria izan den Antonio Camposi eta Urretxu-Zumarraga Ikastolak izan dituen lehendakari guztiei omenaldia egingo zaie eta datorren urteko Kilometroak-eko antolatzaileei lekukoa pasako zaie.

Inaugurazio zinta aurten kargua utzi duen Antonio Camposek moztuko du lehenengo aldiz, orainarteko Kilometroak ekitaldi guztietan parte hartu izan badu ere ez baitu inoiz zinta mozteko aukerarik izan. Zinta moztearekin batera, zirkuitua ofizialki irekiko da eta Euskal Herri osotik etorritako milaka lagunek ibilbidean zehar prestatutako ekitaldiez gozatzeko aukera izango dute.

Aurtengo Kilometroak-ek bi ibilbide izango ditu. Luzea 9,457 kilometrokoa eta motza 7,051 kilometrokoa. Lehen gunea Ikastolan dago eta, bertatik, zirkuitu luzea Santa Barbarara

igotzen da. Handik Kalebarren-Areizagara jaisten da eta, Piedad kalea pasa ondoren, Antiora igotzen da Eliz-Kaletik. Eizatetik Zumarragara jaitsiko gara. Urdaneta, Filipinar Irlak eta Jai Alai kaleak pasa ondoren, bidegorritik Ikastolara itzuliko gara. Ibilbide motza egiteko Goldeneko txaletetara hartu behar da eta zuzenean 4. gunean azalduko gara.


### Santa Barbaratik eta Antiotik jaitsierak egingo dira

Ikuskizunak eta zerbitzuak 8 gunetan banaturik egongo dira. Lehen gunea Ikastolan izango da, bertan emango zaio hasiera ofiziala Kilometroak egunari eta hemen izango dira protokolo ekitaldiak. Familia giroa bultzatu nahi izan da hemen: haur, guraso nahiz gazteen gustuko gunea izango da.

Bigarren gunea Erratzu base-rrian egongo da. Gazteei zuzendutako area, gazte giroa eta kirola nagusituko da hemen. Besteak beste, herri kirolak, hegazti eta abereen erakusketa eta trial-sin erakustaldia ikusi ahal izango dira bertan. Horretaz gain, goming-a eta eskalada egiteko aukera izango da.

Hirugarren gunea Santa Barbaran egokituko da. Euskal giro jatorrean gazteentzako nahiz helduentzako ekitaldiak uztartuko dituen gunea izango da. Bertsolariak, Karidadeko Benta-ren emanaldia, Etzakit, Sen,

# Heme



kilometro

elkar  
beha

urretxu-z



en da!

2

ak 2002

ren  
rrean  
umarraga

Alaitz eta Maider taldeen kontzertuak... izango dira bertan.

Laugarren gunea Etxaburun izango da. Bertako zelaian gazte giroa nagusituko da: kontzertuak (Legen Beltza, Hira, Spezial Guest, Kuraia), tailerrak, haur eta umeentzako jolasak eta

ekitaldiak... izango dira.

Bosgarren gunek Gernikako Arbola eta Areizaga-Kalebarren plazak hartuko ditu. Bertsolariak, antzerkia, esgrima erakustaldia eta musika jaialdiak izango dira hemen.

Seigarren gunea RENFE ko trintxeran izango da. Familia giroan egun ona pasatzeko tokia: Potxin eta Patxin, Kiki, Koko, Moko eta Flash pailazoak, txontxongiloak, txokolate jana....

Antion, berriz, erromeri giroa, baserri giroa izango da nagusi. Artisan erakusketa, meza nagusia, trikitilariak, txiste kontalariak, txalapartariak, dantzariak... izango dira giroa berotzen. Horretaz gain, Zumarragako Irrintzi Dantza Taldeak euskal dantzak dantztuko dituzte.

## Ibilbidetik, geltokitik eta ondoko aparkalekutik autoak mugitu behar dira

Zelai Aristi Parkekoa, Euskadi enparantzakoa eta Lizeokoa, herri erdian kokatutako gunea da. Gazteentzako kontzertuak eta haurrentzako jolasak izango dira nagusi. Zumarragako plazan, Gorka Hermosa, Estitxu Sudupe, Tapia eta Leturia Patxi Perezekin batera, Bide Ertzeanen kontzertuak izango dira. Zelai Aristin haurrei zuzendutako ekitaldietan parte hartu ahal izango da eta Lizeoko patioan, EITBren gunea antolatuko da.

Ikusten duzuen bezala, aipatutako gune hauetan guztietan egun ederra

pasatzeko nahi adina ekitaldi antolatu dira. Baina ezin ahaztu, Kilometroak festak, eta ondorioz bere inguruko ekitaldi guztiek, ahaztu ezin diren helburu zehatz batzuk dituela.

Aurtengo Kilometroak festaren helburuk honakoak dira: gurasoen eta beste estamentuen parte hartzea suspertu, lan taldeen garrantzia eta efikazia espermentatu, auzo lana bultzatu, Ikastola guztiona dela zabaldu, Ikastolaren irudia sendotu eta ezaguturazi Euskal Herria osoan eta euskararen normalizazio bidean lanean jarraitu.

Horretaz gain, 2002ko Kilometroak Urretxu-Zumarragan eta mankomunitate osoan euskararen presentzia sendotzeko eta indartzeko, euskararen eguneroko erabilera bultzatzeko eta "Euskaraz bizi" daitekeela aldarrikatzeko, aukera bikaina da. Baita gure eskualdea ezagutzera emateko tresna baliagarria ere.


Helburu hauek guztiak lortzeko eta Ikastolan egin beharreko inbertsioei aurre egiteko babes soziala eta laguntza ekonomikoa ezinbestekoa dira. Aurtengo leloak dioen bezala, elkarren beharra dugu. Esan bezala, jada ehundaka herritar dira Kilometroak festa antolatzen lanea ari direnak, baina urriaren 6an hiru mila lagun inguru beharko dira erropa saltzeko, txosnetan lan egiteko, trafikoa bideratzeko... Guztiok gara beharrezkoak.

Gure bi herriotan sekula izan den festarik handienan parte hartu nahi baduzue, 943 72 58 47 telefonora deitu eta izena eman dezakezue. Egundorretan beste zereginen bat baduzue, zuen ekarpen txikia eskaintzeko beste modu ere bat baduzue: festara etorriko direnak eta lan egingo dutenak ahalik eta erosten ibil daitezen, zirkuituan, Akelarre elkartearen ondoko enparantzan eta RENFEko enparantzan autorik ez egotea ezinbestekoa da. Hori dela eta, autoa toki horietan uzteko ohitura baduzue, bezperan garajejan gorde edo ospital inguruan aparkatu behar duzue.

Bestalde, urriaren 6an ezingo da herri barruan autoz ibili. Hori dela eta, Kilometroak festaren egunean nonbaitera joateko asmoa baduzue, bezperan ospital ingurura eramatea komeni zaizue.

Kilometroak 2002ko antolatzailerek, barkamena eta pazientzia eskatu nahi dute eragozpen hauengatik guztiengatik.





### 1. IKASTOLA

9:30 - Hasera ekitaldia  
10:00 - Txalaparta  
10:30 - Goiargi Abesbatza  
11:30 - Lurra Dantza Taldea  
12:30 - Pailazoak  
13:30 - Laiotz, Musika Eskola  
15:00 - Pailazoak

### 2. ERRATZU

9:30 - Hegaztien erakusketa  
11:00 - Trialsin erakustaldia  
11:30 - Herri kirol saioa  
12:30 - Arku tiraketa  
13:30 - Trialsin erakustaldia  
14:30 - Herri kirolak

### 3. SANTA BARBARA

11:00 - Etzakit  
12:00 - Bertso saioa  
12:30 - Sen  
13:30 - Karidadeko Benta  
15:00 - Alaitz eta Maider

### 5. AREIZAGA-KALEBARREN

10:30 - Bertso saioa  
11:00 - Fits  
12:00 - Antzerkia: J. Plazaola  
13:00 - Esgrima erakustaldia  
14:00 - Trikitizio  
15:30 - Drindots

### 6. TRINTXERA

11:00 - Potxin eta Patxin  
12:30 - Txotxongiloak: Bihar  
14:00 - Kiki, Koko, Moko eta  
Flax  
16:30 - Txokolate jana

### 7. ANTIO

11:00 - Zumarragako trikitixa  
11:30 - Tolosako dultzaineroak  
12:30 - Irrintzi dantza taldea.  
13:00 - Bertso saioa  
14:00 - Txiste kontalaria  
15:00 - Zumarragako trikitixa  
15:30 - Toka Txapelketa  
17:00 - Kalejiran herrira  
jeitsiera





#### 4. ETXABURU

11:00 - Gazte tailerrak  
11:30 - Zuhaitzaren Soinua  
12:30 - Legen Beltza  
13:30 - Hira  
15:00 - Spezial Guest  
16:00 - Kuraia  
17:00 - Kalejiran herrira  
jeitsiera

#### 8. ELKARREN BEHARREAN

9:30 - Jolas parkea egun osoz  
10:00 - EITB-Bide Batez saioa  
13:30 - Gorka Hermosa  
15:00 - Estitxu Sudupe  
15:30 - EITB-Disko Festa  
16:00 - Ambulance  
17:00 - Bide Ertzean  
18:00 - Tapia eta Leturia eta  
Patxi Perez

## Kilometroak 2002 zozketa mundiala!

Urriaren 6an behar bezala jantzita  
irten nahi baduzu,  
Otamotz aldizkariak aukera bikaina  
eskaintzen dizu!

Deitu **605 71 87 73** telefonora, eman zure izena eta  
erantzun galdera honi: "zer egin behar dute ibilbide-  
ko kaleetan, RENFEko plazan edo Akelarre ondoko  
aparkalekuan autoa uzteko ohitura dutenek?"  
Deitzen duzuenen artean Kilometroak 2002ko  
arropa lote bat zozketatuko dugu.  
Zozketa eguna: irailaren 30a.



# Jon Plazaola, "Operación"

Jon Plazaola urretxuarrak Localia Telebistak antolatutako umorezko bakarriketen lehiaketa irabazi zuen abuztua erdialdean. Gehienek dakizuen moduan, Jon Plazaola Macrea irlandesaren eskutik hasi zen umorezko saioak jendaurrean aurkezten. Macrea bera izan zen Localiak antolatutako saiora joatea proposatu ziona. Jonek Zumarragako jaietan Kilometroak 2002ren oholtzan lehenengoz aurkeztu zuen "Autoeskola" bakarriketa Localiako ikusleen gustukoena izan zen.

## Nolatan aurkeztu zinen lehiaketara?

Macreak Localian umorezko monologoaren saio baterako jendea behar zutela jakin zuen eta joatea erabaki genuen. Horretarako Zarautzen egindako emanaldi bateko bideoa bidali genuen eta, beste 30 bat lagunekin batera, onartu egin gintuzten. Talde ezberdinetan banatu gintuzten eta aste-oro talde bateko partaideok Antiguoko "Cafe Candelan" gure saioa egiten genuen.

Ondoren saio guztiak telebistan bota zituzten eta ikusleek talde bakoitzetik gehien gustatzen zitzaionari botua ematen zioten. Talde bakoitzeko onena finalera pasatzen zen. Macrea eta biok talde berean geundenez, biotako bat soilik sailkatu zitekeen finalera.

## Finala non izan zen?

Finala Donostiako Aste Nagusian izan zen Boulevardeko kioskoan. Egia esan, ez nuen irabaztea espero. Izan ere, partehartzaile gehienak donostiarrak ziren, saioa Donostian zen eta Localia Donostian ikusten da gehienbat. Ikusleek mobil bidez eman behar zuten euren botua. Hori dela eta, Macreak eta biok ezagun guztiei botua



**"Asko gustatzen zaidan txisteren bat entzuten badut niretzat hartzen dut"**

emateko esan genien. Horretaz gain, Foxen eta Gaztelekun kartelak jarri genituen. Operación Triunfo antzeko bat izan zen... herrian telebista saio hau gustuko ez dutenei fenomeno horretan murgiltzeko aukera bikaina eskaini genien! (barreak).

## Zein zen zure bakarriketaren gaia?

Localiakoak bi baldintza bakarrik jarri zizkiguten: ordu-laurden baino gutxiagoko iraupeneko bakarriketa izatea. Gaia librea zen. Nik "Autoeskola" izeneko saioa antzeztu nuen. Bakarriketa hau Zumarragako jaietan, Kilometroetako txosnan, aurkeztu nuen eta jendeak gustura ikusi zuen. Izan ere, jende gehiena bakarriketa horretan esaten dudanarekin oso identifikatuta sentitzen da.

## Gidoi guztia zuk prestatua al zen?

Beste batzuek "El Club de la Comedia" saioko bakarriketak antzeztu zituzten, baina Macreak eta nik geuk prestatutako bakarriketak eraman genituen. Bakarriketa guztiak nik neuk prestatzen ditut, baina telebistan edo beste edonon asko gustatzen zaidan txisteren bat entzuten badut niretzat hartzen dut.

## Nola prestatzen dituzu bakarriketak?

Zailena gaia aukeratzea izaten da. Ikusle guztientzat egokia den gai bat hautatu behar da. Denek ezagutzen duten gai bat. Ondoren, gai

horren inguruan tontakeriak asmatzen saiatzen naiz. Guztiok dakigu gai baten inguruan tontakeriak esaten, baina tontakeria onak ateratzea zailagoa da. Batzuetan klaseko lagunengana joan eta "txorradak" esateko esaten diet. Gidoian puntu fuerte batzuk izan behar dira, jendeak arreta galdu ez dezan. Dena den, ikusleek gutxien espero duzunean parre egiten dute.

## Gidoiaz gain, antzeppenak ere bere garrantzia izango du...

Donostiara joan aurretik ez nuen antzeppena bereziki prestatu, "Autoeskola" saioan antzeppena oso garrantzitsua den arren: bolantea mugitu, bozina jo... Entsaiaitu eta entsaiaitu, ez dut ispiluaren



# Triunfo" Urretxun

beharrik ondo ari naizen jakiteko. Aurpegiak imitatzeke, Aznarrena esaterako, ispiluak garrantzia handiagoa du. Zorionez, Aznarrena ez zait oso ondo ateratzen. Bestela seinale txarra izango litzateke!

**Localiakoek telebista saioen batean parte hartzea eskaini al dizute?**

Oraindik ez. Saria Karibera bidaia

bat zen, baina ez dakit zehazki noiz eta nora joan behar dudun. Bestalde, herriren bateko festetan nor edo nor etorri zait telebistan ikusi ninduela esatera eta zoriontzera. Macrea ere ia ni baino gusturago dago. Gainera, uda ondoren tabernak berriro gure ikuskizunen antzerakoak eskatzen hasten dira. Badirudi gurearen tankerako ikuskizunek gerroz eta harrera hobea dutela.

## Laguntalde umoretsua



Azkenaldian, Jon Plazaola, Macrea, Txarli eta Marina Aparicio ia banaezinak bihurtu dira. Lauek umorea eta antzerkia izugarri atsegin dituztenez eta Urretxu-Zumarragan bizi direnez, ez da harritzekoa elkar ezagutu eta elkartu izana. Azkenaldian, euren ikuskizunak makina bat parre eragin du Euskal Herriko herri askotan. Joni taldekideak hitz gutxitan definitzea eskatu diogu.

**Macrea:** Macrea Macrea da. Ez dago bera bezalakorik. Uneoro komikoa da. Nahi gabe ere xelebrekeriaren bat egiten du. Berarekin ez dago aspertzerik. Gainera, sekulako esperientzia du eta saioen bat oso ondo ateratzen ez denean berehala animatzen gaitu.

**Txarli:** % 100ean zoriontasuna. Showman hutsa da. Eskenatokian sekulako erreztasunaz mugitzen da eta beti txantxetan dabil.

**Marina Aparicio:** Ogi puska. Oso aktore ona da: antzezten ari denean begietara begiratu eta paperean guztiz sartuta dagoela ikus dezakezu.

**Jon Plazaola:** Geldirik egon ezin den tipo bat. Beti alde batetik bestera ibiltzea gustatzen zaio eta eskenatokian ere hala ibiltzen da. Oso elektrikoa.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Belarretu*

**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belar-zain*

Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80  
URRETXU

*foto luz*  
*Argazkilariak*

Legazpi, 5  
☎ 72 11 55  
Zumarraga

Labeaga, 43  
☎ 72 16 81  
Urretxu

Kale nagusia, 5  
☎ 73 04 19  
Legazpi

\* ZURE ESTUDIOA \*

**URKI**

liburudenda

Secundino Esnaola, 3  
☎ 943 72 42 98  
ZUMARRAGA





# Santa A

## Irailak 20, ostirala

18:30 - Mundo Mejor, San Martin eta Pagoeta auzoetan txokolatada eta, ondoren, URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK aterako dira.

19:00 - ARETO BARRUKO FUTBOLA Aldirin: Goierri-EHU.

19:00 - UDAL MUSIKA TAILERRAREN ETA TXISTULARI ELKARTEAREN KALEJIRA.

20:00 - ARETO BARRUKO FUTBOLA Aldirin. Emakumezkoen partitua: Goierri-EHU.

20:30 - PREGOIA ETA KAINOIAREN DANBADA. Trikitilariak, txistulariak, erraldoi eta buruhandiek, Musika Tailerrak eta Akelarre txarangak jendea dantzan jarriko dute.

Ondoren, Akelarre txaranga Urretxuko kaleak girotzen ibiliko da goizaldera arte.

23:30 - Gernikako Arbola plazan, Euskadi Gaztearen DISKO FESTA.

00:00 - Urretxuko "Iparragirre Balerdi" Musika Tailerreko Bandaren eskutik DANTZALDIA Iparragirre plazan. (Eguraldi txarra eginez gero frontoian izango da).

## Irailak 21, larunbata

9:00 - Avenida berrian, Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETARI emango zaio hasiera. "Secundino Esnaola" Musika Ikastetxeko trikitilariak izango dira bertan giroa alaitzen.

11:00 - URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK Pagoetatik Iparragirre plazara joango dira.

12:00 - LUZ irratizaleen eskutik: Kultur Etxetik IRRATIZALEEN EMANALDIA arratsaldeko 20:30ak arte.

12:00 - ABENTURAZKO PARKEA Lizeoko plazan: gominga, tirolina... Ordutegia: goizean 12etatik 2etara eta arratsaldean 6etatik 9:30etara. Gauean gomingak jarraituko du, gaueko 11:30etatik goizeko 2:30etara.

12:30 - Ganadu lehiaketaren SARI BANAKETA San Martin-Barrenkaleko aparkalekuan. Jarraian, Jokin Sorozabal eta Jesus Mari Irazu BERTSOLARIEN SAIOA.

13:00 - San Martin-Barrenkaleko aparkalekuan IDI PROBEN LEHIAKETARI emango zaio hasiera. Partaideak: eguerdiko ordubatetan, Egoitz Armaolea eta Urruzti eta, arratsaldeko 6etan, Patxi Aranbarri eta Belarreta.

13:30 - Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duen "Rzgów" talde poloniarri ongietorria udaletxean.

15:30 - Santa Barbarako bidean, Odriozolaren plazatxoan, PLATER TIRALDIA arratsaldeko 8ak bitartean (izen-ematea, arratsaldeko 7ak arte. Entrenamenduak, goizeko 10etatik 1a arte).

16:30 - PAILAZOAK Gernikako Arbola plazan.

17:00 - Ederrena pilotalekuan, XXVII. GASTRONOMI LEHIAKETA hasiko da. Jangaia: untxia saltsan. Aurten sukaldariak Gaztelekua eta frontoiaren artean jarriko den karpa batean arituko dira.

18:00 - "BIZNIETOS DE CELEDÓN" TXARANGA Urretxuko kaleak alaitzen hasiko da.

18:00 - IDI PROBEN bigarren saioa San Martin-Barrenkaleko aparkalekuan.

18:00 - ABENTURAZKO PARKEA Lizeoko plazan.

18:30 - Kaleetan zehar HERRIARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIAn parte hartuko duen poloniar taldearen desfilea.

19:00 - Gernikako Arbola enparantzan, HERRIARTEKO XIV. FOLKLORE JAIALDIA. Eguraldi txarra eginez gero, jaialdia Aldiri kiroldegian izango litzateke.

21:00 - Ederrena frontoiaren barruan, Gastronomi Lehiaketako sari banaketa. Ondoren, sukaldari eta laguntzaileek prestatutakoa triparatuko dute. Afalondoa "Biznietos de Celedón" txarangak alaituko du.

23:00 - Iparragirre plazan, txistulariak antolatutako JAIALDI IKUSGARRIA Patxi Urrestarazu Arañaren omenez. Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian izango da.

23:30 - Lizeoko plazan gominga goizeko 2:30ak arte.

Goizeko 3:30ak arte, "Biznietos de Celedón" txaranga kaleetan zehar.

0:30 - Gernikako Arbola plazan, "Montes Blancos" orkestrarekin DANTZALDIA goizaldeko 5ak arte.

7:10 - Gernikako Arbola plazan, zezentxoak.



# nastasiak 2002

## Irailak 22, igandea. EUSKAL JAIA.

10:00 - Urretxuko txistularien, Zumarragako Trikitixaren eta Iratzarri dultzaineroen KALEJIRA. Aldi berean, GOIZEKO EUSKAL JAIA.

11:00 - Aldiri kiroldegian Beasain, Bergara, Legazpi, Elgoibar, Ordizia eta Urretxuko ERRALDOIAK elkartuko dira, gero kalejiran Iparragirre enparantzaraino joateko.

11:30 - Iparragirre plazan: sagardo eta txistorra dastapena, artisauen erakusketa eta trikitilari, dultzainero, txalapartari, dantzari eta erraldoien jaialdia.

12:30 - MEZA NAGUSIA Martin Deunaren Eliza Nagusian.

17:30 - KARROZEN IBILALDIAREN irteera Mugitegitik. Aurten 11 koadrila arituko dira lanean.



18:30 - Gernikako Arbola plazan, Urretxuko Txalapartarien eta Zuhaitzaren Soinua Kolektiboaren saioa.

19:15 - Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola plazan sartzen hasiko dira. Ondoren, epaimahaiaren erabakia jakinaraziko da.

23:00 - Gernikako Arbola plazan, DANTZALDIA "Kristina eta Amaia" taldearen eskutik.

23:30 - EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA Gernikako Arbola plazan.

0:00 - "Bedaioko ingurutxo" dantza herrikoa Gernikako Arbola plazan. Ondoren, dantzaldiak jarraituko du "Kristina eta Amaia" taldearekin.



## Irailak 23, astelehena. KOADRILEN EGUNA.

11:30 - HAURRENTZAKO JOLASAK Iparragirre plazan, eguerdiko 2ak arte eta arratsaldean 4etatik 6ak arte.

12:30 - Gernikako Arbola plazan, denontzako ZEZENTXOAK. Bertan "Iraunkorrek" txaranga-koak arituko dira.

Ondoren, "Iraunkorrek" txaranga eta koadrilen musika alaiaz lagundurik, HERRI KALEJIRA.

14.30 - HERRI BAZKARIA Avenidan.

16:00 - HAURRENTZAKO JOLASAK, Iparragirre plazan, arratsaldeko 6ak bitartean.

17:00 - Bazkarian erabilitako mahaiak jasoko dira.

18:00 - Gernikako Arbola plazan, HERRI KIROL JAIALDI ikusgarria: kaskara jokua, harrijasotzea, trontza eta aizkora saioak.

1. taldea: Larrea I kaskara biltzen, Ostolaza II harrijasotzen eta Arrospide-Ugarteburu trontzan eta aizkoran.

2. taldea: Larrea III kaskara biltzen, Goenatxo II harrijasotzen eta Azurmendi-Elorriaga trontzan eta aizkoran.

18:30 - Iparragirre plazan, Hankagorri taldearen eskutik, "Trufaldinoren trufak".

21:00 - KANTU AFARIA.

23:00 - Gernikako Arbola plazan, DANTZALDIA "Maitana" taldearen eskutik.



# Afari Kantuak: 9 urteko lanaren fruitua



Zortzi urte pasatu dira jada, garai hartan bere lehen pausua ematen ari zen Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarteak eta herriko hainbat musikariek Santa Anastasietan festa giroko euskararen aldeko ekimen bat antolatzea erabaki zutenetik. 1994an lehenengoz izan zen Kantu afaria Urretxuko jaietako egitarauan azken urteotan txertatu den berrikuntzarik arrakastatsuenan izan da: urtero-urtero 500 lagunetik gora biltzen dira Abenidan koadrilen egunean, bokadilo bat jateko eta kantatzeko asmoz. Horretaz gain, jende askok egun horretan banatzen diren liburuxkak familiarterako eta lagunarteko bazkarietara eramaten ditu bazkalostea kantuz girotzeko.

Urtero Kantu Afariko musikariak ordurarte kantatu gabeko abestiak prestatzen saiatzen dira. Hala, 1994tik gaurdaino berrehundik abesti gora kantatu dira Abenidan. Hau ikusirik, musikariek orainarte abestutako abesti hauek guztiak poltsikoan eramateko liburu batean biltzea ideia polita izango zela pentsatu zuten. Zintzo-Mintzorekin harremanetan jarri ondoren, iazko Santa Anastasien ondoren ekimena abian jarri zuten.

Azken urtebete honetan, musikariek eta Zintzo-Mintzokoek gogor lan egin dute: zenbat froga, bilera, zuzenketa... egin ote dira! Lan gogor honen guztiaren ondoren, Afari Kantuak liburua jada kalean da. 300 orrialde dituen liburuan, 209 abesti bildu dira. Hasieratik, Kantu Afariko musikariren nahia adin guztietako herritarrei kantatzeko aukera eskaintzea izanenez, liburuan guztien gustuko abestiak (bakoitza bere tonuarekin) aurki ditzakegu. Abesti herrikoiekin batera, Euskal Herriko bakarleri eta talde asko eta askoren abestiak liburuan dira: Oskorri, Hertzainak, Xabier Lete, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Itoiz... Jose Mari Iparragirrearen abestiak ere ez dira falta, noski!

Liburuaren mamia urte hauetan guztietan abestu diren abestiak diren arren, egileek Kantu Afarian parte hartzen duten herritarrei ere omenaldi txikia eskaini nahi izan diete. Hori dela eta, kantuen artean Otamotz herri aldizkarirako Kantu Afarian aterako 30 argazki inguru aurki ditzakegu. Argazki hauetan Kantu Afarian parte hartzen duten hainbat eta hainbat herritar ikus daitezke. Argazkiek eta Unai Izagirrek egindako azalaren eta kontrazalaren diseinuak liburuari itxura benetan erakargarria ematen diote.

Afari Kantuak liburuaren aurkezpena aste honetan bertan izan da eta jada herriko hainbat tokitan eros dezakezue 6 eurotan. Familiarterako edo lagunarteko bazkalondoak girotu nahi badituzue, Afari Kantuak liburuak aukera bikaina eskaintzen dizue.





**Aitor**, horiek dira horiek kixkurak! Diego Armando Maradonak berak ere hartuko lituzke!



**Aitor**, badakigu eskolan hasteak ez dizula grazia handirik egin, baina irrifartxo bat asko eskatzea al da?



**Alazne**, argazkilaria ikusi eta lotsatu egin al zara? Jada ez zara ba ume moko bat... Zorionak!



**Amaia**, uda honetan gustura asko izango zinen zure etxe berriko berotasunean! Zorionak!



Neska, hori da hori "interesante" aurpegia jartzen duzuna argazkietan... Zorionak **Ana** eta ondo ibili!



**Andrea**, amari ezpainetako margoa lapurtu al diozu? Sara Montiel dirudizu... Zorionak eta ondo ibili!



**Arrate**, katekistiko haurrek oraingoan ere atsekaberen bat eman al dizute? Eutsi goiari!



**Asier**, mozkorturik al gaude ala argazkilaria ez al du oso ondo enfokatu? Zorionak eta ondo ibili!



**Asun**, hori da hori irrifarrea... ondo zaindutako... duzu gero! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Begoña**, ea hurrengoan argazkilaria kasu handiago egiten diozun! Zorionak eta ondo ibili!



**Consuelo**, zuk ere ez duzu ez irrifarre makala! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Elizabet**, ez dakigu ba betaurrekoak oso ondo dituzun... izan ere argazkilaria topa ezinik zabilzta!



Eutsi goiari **Eneko**, konturatu orduko Gabonetako oporrak iritsiko dira! Zorionak!



**Frank**, Alemanian txapela buruan eta saltitxa eskuan ibiltzen al zara? Zorionak!



**Gari**, Urretxuko jaietan ere horren serio irten behar al duzu kalera? Zorionak eta txintxo ibili!



**Ignazio**, dirudenez eskola lehen egunak gogor samarrak egiten ari zaizkizu... Zorionak!



**Igor**, ea argazki berri bat bidaltzen diguzun, honezkeror arratsaldero zaharren egoitzara joango zara eta!



**Iker**, etzazu txintxo aurpegia jarri, zu ere bihurri samarra izango zara eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Iñaki**, uda honetan izan dugun eguzki zoragarritik babesteko jarri al zara itzaletan? Zorionak!



**Joana**, oso ondo dago irrifarre egitea, baina adi egon zaitez bestela burua eroniko zaizu eta!



**Jaione**, spaghetti pare bat jarri al duzu belarrietatik zintzilik? Zorionak eta ondo ibili!



**Jesus**, oraingoan ere katekistek barrabaskeriaren bat egin al dizute? Zorionak eta ondo ibili!



**Jon**, azkenaldian bakarrik joango zinen kafesnea hartzera eta egunkariak irakurtzera... Zorionak!



**Jonmikel**, UTBn Goierrri-Urola Garaia auziari buruz mahaingurua antolatuta behar omen dute...



**Jose Mari**, etzazu serio aurpegia jarri, badakigu parranda egiten duzunean nola ibiltzen zaren eta!



**Josepa**, bilobek behar bezain ondo zaintzen al zaituzte? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Josu**, Arizmendiarietar guztiek alproja aurpegi berbera al duzue? Hau da marka! Zorionak!



**Josune**, ez dirudi eskolan hasi beharrak asko goibeldu zaituenik... Zorionak eta ondo ibili!



**Joxean**, urriaren 6aren ostean bai putz egingo duzula lasai asko! Zorionak eta ondo ibili!



**Julen**, zu bai mutil serio eta zintzoa... ea inguruan dituzunek zuek inguruen ikasten duten... Zorionak!



**Ekaitz**, lepoa gehiago tentetzen baduzu, aurki jirafen modura zuhaitzen adarretara helduko zara!



**Jasone** zu bai gustu oneko pertsona: nahiz eta segurarra izan Antion ezkondu zara. Zorionak!



**Leire**, dirudinez Zumarragako katekistekin lan egiteko behar bezain alproja zara! Zorionak!



**Lide**, hori da hori musugorria duzuna... ez da ba abuztuko beroagatik izango... Zorionak!



**Lierni**, Amaia belarrira txiste lizunen bat kontatzen ari al zaizu? Zorionak eta ondo ibili!



**Lourdes**, eziezaguzu horren harroko begiratu, errespetu pixka bat merezi dugu eta!



**Luis**, zu bai gizon galanta! Zorionak, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi horren "elegante"!



**Maialen**, hori da hori zintzo aurpegia duzuna... argi ibili inguruan dituzun bihurriekin! Zorionak!



**Manolo**, zer demontre egiten ari? Xelebre aurpegi hori ikusirik, gauza onik ez! Zorionak!



**Mari Carmen**, ez duzu ez irritu makala: horren seme parrandazalea izan eta horren irrifartsu!



**Maria**, neguan txamarra jarri zenuen eta oraindik ez duzu kentzeko aukerarik izan! Zorionak!



**Maria Jesus** bihotzekua, segi ezazu horren irrifartsu! Zorionak eta ondo ibili!



**Marijo**, ikasturtea hasi ondoren ere horren irrifartsu jarraitzen al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



**Marta**, meteorito zati bat erori al zaizu burura? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Mikel**, oraindik ere "Biba er Beti manke pierda" esaten al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



**Naiara**, uztaila eta abuztuan egin duen eguraldiak zu ere lur jota utzi al zaitu? Zorionak!



**Nerea**, hori da hori masailak dituzunak, bi txupatxus ahoan sartu dituzula dirudi! Zorionak!



**Oihana**, ea egunen batean ileapaindegira joaten zaren, aurki ilearekin estroputz egingo duzu eta!



**Olatz**, zein ileapaindegitar joaten zaren esan beharko diguzu, gu ez gaituzte horren ederki uzten eta!



**Saioa**, pozten gara ikasturtea hasi berritan zu horren pozik ikusteaz! Zorionak eta segi horrela!



**Tim**, hori da hori irrifarrea... zer demontre egiten ari zara? Zorionak eta ondo ibili!



**Unai**, hori da hori irrifarrea... argazkian neskez inguratuta izango zara seguraski... Zorionak!



**Urko**, hori da hori harridura aurpegia duzuna... eguzkia ikusi al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



**Xabier**, ez dirudi ikasturtea hasteak tristetu zaituenik... Zorionak eta segi horren irrifartsu!



**Igor**, hori da hori play-boy itxura duzuna... Berandu bada ere zorionak eta ondo ibili!



# Lehen zortzi mila

Duela urtebete Otamotzeko atal honetan bertan Jon Marotok, Iñaki Alvarezek eta Xabi Ormazabalak Huascaraneetik bueltan bertan igarotako egunen berri eman ziguten. Elkarrizketa hartan aurten, beharbada, Komunismo mendia igotzen saiatuko zirela esan ziguten. Baita egin ere! Hiru herritarrek uztaila bukaeran abiatu ziren Tadjikistanera eta abuztuaren 29an bueltatu ziren. Aurten Xabik soilik lortu du gailurra egitea, baina hara heltzeko eta, batez ere, onik jaisteko Jonen eta Iñakiren laguntza ezinbestekoa izan du. Duela egun gutxi Xabirekin hitz egiten izan ginen.



## Zer dela eta hautatu zenuten Komunismo mendia?

Iazko esperientzia ikusita, aurre-rapausu bat eman nahi genuen eta zazpimilako bat igotzea erabaki genuen. Beste mendi batzuen izenak ere atera ziren arren, Pumori esaterako, azkenean Komunismo hautatu genuen. Izan ere, mendi polita, altua eta zaila da.

## Nola antolatu zenuten bidaia?

Tadjikistanera heltzea oso zaila denez, bidaia Felipe Uriarterekin antolatu genuen. Kanpamentu basera heldu bitarteko guztia berak prestatu zigun eta hortik

gorakoa gure kontu. Feliperekin hitz egin zuen bilbotar bat, Alex, gurekin joan zen.

## Tadjikistan-era heltzea zaila dela esan duzu, bidaia luzea izango zen...

Bilbotik irten ginenetik Komunismo mendiko kanpamentu basera iritsi ginen arte hiru egun pasa ziren. Bilbotik Bartzelonara joan ginen, handik Istanbulera, Turkiatik Kirkistango hiriburura (Biske) eta bertatik Tadjikistango Osh hirira. Ondoren, kamioian 12 orduko bidaia egin genuen eta helikoptero batek 4.400 metrora dagoen kanpamentu basera eramantzen gintuen.

## Behin kanpamentu basean, zer egin zenuten?

Kanpamentu basean beste hiru espedizio zeuden: errusiar bat, frantses bat eta turkiar bat. Kanpamentua oso ondo dago, txabola batzuk baitaude eta abuztuaren gobernua medikua eta sukaldaria bidaltzen baititu. Bertan, hiru egun atsedean hartzen egon ginen. Ondoren Vorobiev (5.800 m.) igotzeko asmoa genuen, baina nik sukarra nuen eta ez nintzen joan. Alex, Jonen eta Iñakik, altura dela eta, buruko mina zuten eta ez ziren goraino iritsi. Ondoren, Chetirekh (6.300 m.) igo genuen inongo arazorik gabe.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.  
-HORTZ KLINIKAK.  
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.  
-HERIOTZ ASEURUA.  
-ISTRIPU ASEURUA.  
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina  
20600 EIBAR  
☎ 943 20 24 70

**La Previsora Bilbaina, S.A.**  
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO  
museoari atxikituriko enpresa



# koia bidean

## Nola joan zen Komunismora igoera?

Komunismora guztiok batera abiatu ginen, turkiarrak izan ezik. Zailena lehen kanpamentutik hirugarrenarako bidea da, izotzean eta harkaitzean eskalatu behar baita. Iñakik eta nik azken kanpamentua laugarrenean montatu genuen, baina gainontzekoek bosgarren kanpamentu bat montatu zuten pixka bat gorago. Iñakik eta biok laugarren kanpamentutik zuzenena igo nahi genuen, baina ezin izan genuen. Jaitsieran bosgarren kanpamentuan gelditzea erabaki genuen. Gu denda gabe geundenez eta frantsesek euren dendako barillak galdu zituztenez, 9 lagunok bi dendetan lo egin genuen.

## Noiz egin zenuten azken saiakera?

Hurrengo egunean eguraldi txarra egin zuen eta denda barruan egon behar izan genuen. Biharamunean, nekatzen hasiak geunden eta gure azken aukera zela ikusi genuen. Errusiar bat, hauen gidaria, Alex eta ni soilik animatu ginen. Errusiarrek eta Alexek berehala buelta eman zuten. Gidaria gu baino bi ordu lehenago irten zenez, ia igoera guztia bakarrik egin nuen. Gainera, azken maldan errusiarren gidariak buelta erdi eman zuen eta bidea nik ireki behar izan nuen. Sekulako hotza nuen, nekatuta nengoen eta 7.000 metrotik gora oxigeno falta asko nabaritu nuen, baina gailurra gertu nuenez, jarraitzea erabaki nuen. Gailurrean tristura sentitu nuen, espedizioa Iñaki, Alex eta

Jonekin prestatu ondoren, faltan somatzen bainituen.

## Jaitsiera benetan gogorra izango zen...

Gailurrera arratsaldeko 7etan heldu nintzenez, jaitsieran gaua egin zen. 5. kanpamentuan Alex bakarrik zegoen nire zain, Jonek eta Iñakik utzitako zaku batekin Izan ere, irten nintzenez 4. kanpamentura jaitsiko nintzela esan nien. Eskerrak badaezpada ere batenbat bertan gelditzea erabaki zuten, oso nekatuta eta konjelazio txiki batzuekin heldu bainintzen. Eskerrak eman nahi dizkiet.

## Datorren urtean nora joango zareten erabaki al duzue?

Oraindik ez, Gasherbrum, Sisha Pangma, Lenin, McKinley... Arazo nagusia dirua da. Aurten Gutisport-ekoek materiala erosten duten prezioan saldu digute eta Zumarragako Udalak, Comercial Peñak eta Plasnor-ek diru laguntzak eman dizkigute, baina ez da nahikoa. Diru pixka bat ateratzeko diapositiba emanaldiak eskaintzeko asmoa dugu eta urtarrila bitartean enpresei dirua eskatuko diegu. Ezin gara hasieratik kamisetak saltzen hasi. Izan ere, kamisetak saltzen badituzu derrigor joan beharra duzu jendeak bere laguntza eskaini baitizu. Himalalayara zortzimilako bat egitera joaten bagara, dirua lortzea errazagoa izango da: zortzimilakoek izen handia dute eta hauetako bat igotzen saiatuko garen lehen herritarrek izango gara seguraski.

“Gailurrean tristura sentitu nuen, Iñaki, Alex eta Jon faltan somatzen bainituen”

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA

**Herri Aldizkaria**  
**Olamotz**  
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 72 57 75 telefonora.  
**Merkea eta ona!**

**BAPRI**  
ANIMALIADENDA  
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA

**KABIJA**  
JATETXEA

Legazpi, 5  
☎ 943 726274  
ZUMARRAGA

**ETXABURU**  
merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRETXU





## Rikardo Babarro

Urretxuar eta zumarragarrei bilbotarren bat ezagutzen dugun galdetuko baligute, gehienok "Ritxi" erantzungo genuke. Izan ere, herrian 15 urte daramatzen bilbotar hau primeran moldatu da Urretxu-Zumarragako bizitzara, baina sekula ez du ezkutatatu bere bilbotar nortasuna.

"Ritxi"-k Bilboko San Francisco auzoko "Corazón de María" apaiz eskolan ikasi zuen eta bertan Athletic-eko jokalaria izango ziren Julio Salinas eta Endikarekin jokatzeko aukera izan zuen. Ondoren, filologia espainiarra ikasi zuen Deustuko unibertsitatean. Garai hartan tabernari lanetan, Almerian lorak landatzen, egunkariak banatzen... ere aritu zen. 1987an Lizeora etorri zen literatura klaseak ematera. Hasieran Bilbora buelta-tzen zen astebururo, baina berehala moldatu zen hemengo bizimodura. Bilbotarra izateak beti eskaini dio ikasleekin txantxetan aritzeko aukera eta, bere esanetan, horrek klasean giro ona izaten asko lagundu omen dio. Ikastetxetik kanpo ere aski ezaguna dugu, hasiera-hasieratik herriko hainbat elkartetan murgildu baita.

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Athletic-eko jokalaria.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea.

### -Bizitzeko toki bat?

Sustraituta baldin bazaude, edozein toki izan daiteke ona.

### -Athletic atzerritarrekin ala atzerritarrik gabe?

Atzerritarrik gabe. Atzerritarrak izatea ez du ezer irabaztea ziurtatzen (hor dago Real). Funtsezkoena ez da irabaztea, duzunarekin aritzea baizik.

### -Semea Realekoa omen duzu...

Ez dakit ba... Lehengoan derbya ikusten izan ginen eta bi taldeek berdintzea nahi zuen. Athletic-ekoa da, baina Real ere gustukoa du.

### -Bilboko ura Katalunian egiten omen dute...

Bilboko uraren kontu hori taberna batean sortu zen. Bilboko ura txanpan suabe eta txarra da, baina Bilbon hartzeak kategoria ematen dio.

### -Zer egiten du bilbotar batek Gipuzkoako bihotza den Goierrin?

Etorri berritan lagunei misiolari moduan etorri nintzela esaten nien.

### -Realeko zein jokalaria eramango zenue Athletic-era?

Xabi Alonso eta Mikel Aranburu. Rekarte ere ona da... Aranzabal beti oso jatorra iruditu zait...

### -Bilbo ala Urretxu?

Egun Urretxu nahiago dut, baina noizean behin Bilbora joan beharra dut kea usaintzera.

### -Zenbat aldiz izan zara Parisen?

Lehenengoz 17 urterekin izan nintzen eta, ondoren, 9 aldiz joan naiz Lizeoko ikasleekin.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Berdin zait.

### -Egindako azken oparia?

Belarritako batzuk.

### -Eta jasotakoa?

Motxila bat eta umeak egindako marrazki bat.

### -Data bat?

Uztailaren 26a: seme zaharrenaren jaioteguna eta iraultza kubatararen eguna.

### -Neska eta mutil izen bana?

Irune eta Adur.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara erosten dut. Irakurri, berriz, Gara, Egunkaria, El País eta DV. Larunbatetan El País ere erosten dut, literaturari buruzko gehigarria baitakar.

### -Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebista asko ikusten. Informatiboak.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Lo Que Faltaba eta antzerakoak.

### -Liburu bat?

Orain Luis Mateo Díez-en "El diablo meridiano" ari naiz irakurtzen. Saramago, Mendoza eta Atxaga ere gustukoak ditut.

### -Filme bat?

"Las bicicletas son para el verano".

### -Gustuko abestia?

Silvio Rodriguez-en "Te amaré".

### -Soinu bat?

Trikitixarena.

### -Usain bat?

Amaren herrian pasatako udak gogorazten dizkidan ezkaia (tomilloa).


### -Janari bat?

Makailoa bizkaitar erara eta karakolak.

### -Ura ala...

Errioxar ardoa ere bai, bakoitza bere momentuan.





# MERKA-UROLA ALTZARIAK



*Ondo pasa Santa Anastasiak!*



Mugitegi, 17 - Tel./fax: 943 72 58 28 - URRETXU



Santa Anastasiak 2002

*Urretxuko giroa!!*



**Urretxuko  
Tabernariak**

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz  
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba  
Avenida • Buhame • Aldapa

**Ondo pasa jaiak!**